

Kaixo

2012 MARTXOA / 108. ALEA

urretxu!

2. orrian

URRETXUKO ETA UROLA GARAIKO LAN MERTATUAREN AZTERKETA ZENBAKITAN

Errealitate gordin baten inguruko datu eguneratuak

8. orrian

AURREKONTUAK ETA PARTE HARTZEA

2012ko sarrerak 7.482.957,46 eurotakoak izatea espero da

10. orrian

KRISIA, NOLA BIZI DUTE URRETXUARREK EGUNGO ERREALITATEA?

Kalean egon gara gaiaren inguruko iritziak biltzen

11. orrian

URRETXUREN AZTER- KETA SOZIOLOGIKOA, BERE BALOREEN BIDEZ

Peio Galvezek aurkeztu du bere beka lanaren liburua

4. orrian

UGGASA, GARAPEN BIDEAN SAREAK ERAIKIZ

Itziar Salaberria

zuzendariari elkarrizketa

Kaixo urretxu!
Urreruko Udal Aldizkaria



Lan merkatuaren egoera Urretxun eta bailaran

2012ko datuen arabera, 400 pertsona langabetu daude Urretxun eta 1.484 langabetu Urola Garaian. Honek, Urretxuko langabezi tasa %11,9ean kokatzen du

	2008	2009	2010	2011	2012 Otsaila
Urretxu	%8,0	%11,9	%11,4	%11,1	%11,9
Urola Garaia	%8,5	%11,5	%11,5	%11,6	%12,1
Gipuzkoa	%9,2	%10,8	%11,0	%11,5	%12,5
E.A.E.	%10,5	%11,9	%12,6	%13,5	%14,7

2009 geroztik eta krisiaren eraginez, Urretxuko eta Urola Garaiko langabezi tasak Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik jarri ziren. 2011. urtearen bukaeran, aldiz, joera aldaketa bat sumatzen da, eta nahiz eta 2012 urte hasieran, orokorrean langabezi tasak gora egin duen, Urretxun eta Urola Garaian proportzioan gorakada txikiagoak gertatu dira.

Aipatzekoa da **gizonezko eta emakumezkoen** artean dagoen aldea; Urret-

xuko langabetu pertsonen artean, %41,5 gizonezkoak dira eta %58,5 emakumezkoak. Industrian oinarritutako bailararen ezaugarria da hau, Gipuzkoa mailan gizonezkoen langabezi tasa %47 eta emakumezkoena %53koa baita.

EMAKUMEZKOAK

GIZONEZKOAK

234

Urretxu

787

Urola Garaia

166

Urretxu

697

Urola Garaia

Ale honetakoa laguntzaileak: Itziar Salaberria, Ana Isabel Iturbe, UG-GASA, Peio Galvez, Irene Calvillo, Oihane Zabaleta.

Argazkiak: Luis Angel Téllez, Asier Larraza, Alex Areizaga, Gotzon Aranburu eta Kaixoko laguntzaileak.

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa eta diseinua: Ur Artola Probanza

Koordinatzailea: Jon Ormazabal

Inprimaketa: ANTZA Tirada: 3.300 Ale

KAIXOk ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net.

Urretxun, proportzioan, krisiak bi segmentuetan izan duen eragina oso parekoa izan da, 2008.eko datuen arabera, langabetuen %41a bait ziren gizonezkoak eta %59 emakumezkoak.


2008. urtetik 2012ra langabetu kopuruaren hazkundera 152 pertsonatakoa izan da Urretxun, 248 langabetutik 400 langabetura pasa da.

Adinari erreparatu, langabetu kopururik handiena 25-44 adin tartean kokatzen da, 233 hain zuzen ere.

	> 45 urte	25-44 urte	< 25 urte
2008	83	134	31
2012 Ots.	129	233	38

Tarte honetan langabetu kopurua %74an igo den bitartean, aipatzekoa da ere 45 urte gorako artean jasan den gorakada (55%).

Jarduera Ekonomikoaren arabera langabezia nola banatzen den begiratu gero, proportzioan azken 3 urteetan aldatuta nabarmenik ez dela eman ikus daiteke:




Eraikuntzak jasan duen hazkundera azpimarragarria da, 2008an 15 langabetu bazeuden sektore honetan, 2012an 37 pertsona daude. Aldiz, Industria sektorean 70 pertsona zeuden 2008an eta 92 pertsona langabetu 2012ko otsailan.

Eskaeraren bilakaera, sinatutako kontratu kopurua: Aipagarria da Urretxuk izan duen kontratu kopuruaren hazkundera 2011 eta 2010 urteetako 4. Hiruhilabetekoak konparatzen baditugu, %10,88ko hazkundera hain zuzen ere. Orokorrean joera kontrakoa izan da bai eskualdean eta bai Gipuzkoa mailan ere. Honek, 2011an Urretxuko langabezi tasaren joera positiboa esplikatzeko du.

Hazkunde hau, hein handi batean emakumezkoen kontratazioetan eman da.



Jarduera Ekonomikoari erreparatzen baditugu, modu honetan banatzen dira azken hiruhilabeteko kontratazioak:



Aipatzekoa da, 2011ko azken hiruhilabetekoan Industri sektoreak izan duen pisua, bereziki Gipuzkoako batez beste-koarekin konparatuz.

«Sareek eta elkarlanak garapena eragingo dute»

Zuzentzen duen erakundeaz eta Urretxuko egoera ekonomikoaz luze aritu gara Itziar Salaberria, UGGASako zuzendariarekin.

Zer helburuarekin sortu zen UGGASA (Urola Garaiko Garapenerako Agentzia)?

// 90eko hamarkada hasieran lan-merkatuaren egoera oso zaila zen, orduan langabezi tasak oraingoak baino altuagoak ziren. Enplegu sustapenaren helburuarekin, eta tokian tokiko Plan Estrategikoei erantzuna emateko, Garapen Agentziak sendotzen joan ziren Gipuzkoa mailan, bailara bakoitzeko udalerrien parte-hartzearekin.

UGGASA 1.994an sortu zen, Urola Garaia Mankomunitateak sustatua, Ezkio-Itzaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako Udalen eskutik. Esan daiteke Uggasa, gure herrietako garapen ekonomikorako, udalen baliabide eta tresna dela.

Zertan zehazten dira Sustapen Ekonomikorako lan arloak?

// Gure funtsezko lan arloak lau dira:

* Ekintzailetasuna, barne-ekintzailetasuna eta berrikuntza prozesuen sustapena.

* Enpresa ekimen berriei eta bailarako



Itziar Salaberria San Vicente
Uggasako zuzendaria

Urretxu, 1972.

Ikasketak:

Enpresa Zientzietan lizentziatua (EHU, Sarriko), Nazioarteko Marketinean Graduondokoa (Sttfordshire University)

Ibilbide profesionala:

Urte erdiz, bekadun bezala, Estatu Batuetan (Atlantan) hasi zen lanean, multinazional bateko marketing departamentuan. Ondoren Donostian, enpresa gestio aholkularitzan lan egin zuen 4-5 urtez. 2002an UGGASAn hasi zen eta bertan hainbat arloetan aritu da; Ekintzailatza teknikari gisa, Enpresa garapen teknikari bezala eta azken urteetan Zuzendari gisa.

Enpresa txiki eta ertainei laguntzea: informazioa, bitartekaritza, laguntza teknikoa, formakuntza, lankidetzaren proiektuen dinamizazioa, etab.

* Enplegu politika aktiboak eskualdean bideratzeko dinamizazio lanak egitea.

* Lehiakortasunerako Behatokia; Merkatu joeren eta "praktika onen" zaintza,

eskualde mailako diagnostikoak eta adierazleen jarraipena.

Hauetaz gain, tokiko Agenda 21ko jarduera komun batzuk bideratzen ditugu, Urola Garaiko Berdintasun planaren inplementazioan parte hartzen dugu eta, azken urtean, Turismoaren promozioa eta merkaturatzearen ardura hartu du Uggasak. Guztira, 8 pertsonak osatzen dugu Uggasako lan-taldea.

Eta nola koordinatzen zarete Udaletako garapen ekonomikorako ekimenekin?

// Uggasako Administrazio kontseilua-Mankomunitatea osatzen duten lau herrietako, udal-hauteskudeek emandako emaitzen arabera, udal ordezkari eta alderdien ordezkariak politikoak osatuta dago. Guztira hamabi kontseilukide. Legealdi honetan Urretxuri dagokio Uggasako lehendakariak eta beraz, Oihane Zabaletak, Urretxuko alkateak, du kargua momentuan.

Kontseiluan, Uggasan garatzen ditugun proiektu, ekimen eta jarduera guztien jarraipena eta aurrekontuen onarpena egiten da. Eskualdeko Plan Estrategikoaren ardatzekin lerrotatuta, normalean agentziak proposatzen ditu lan-egitasmoak edo proiektuak, baina batzuetan udalak dira hauek mahaiganeratzeko dituztenak, Uggasaren bitartez amankomunean lantzeko helburuarekin. Bestetik, agentziak harreman zuzena du alkateekin eta, egokia ikusten denean, udal batzordeetan parte hartzen dugu, gure jardueraren berri emateko.

Beraz, garapen ekonomikoari dagokionez, eskualdeko plangintza amankomuna dagoela esan daiteke?

// Garapena, ez da soilik hazkunde ekonomikoa, hazkunde hori nola banatzen den eta zer jardueretan oinarritzen den kontutan hartu behar da baita ere. Eskualdeko Plan Estrategikoak minimo batzuk ezartzen ditu zentzu honetan, baina gehiago sakondu beharko litzaiteke bailarako Garapen Ekonomikoak lidergo sendo bat izatea nahi badugu. Lidergo hau ezinbestekoa da krisiaren aurrean martxan jartzen diren lan-ildo estrategikoen ibilbidea eraginkorra izatea nahi badugu.

Gainera, Uggasatik bultzatu daitekeen edozein strategiaren oinarrian, Udalek edota beste eragile batzuen eskuetan dauden bestelako alderdiak daude, bereziki garapen ekonomikorako azpiegituren egoera: lurzoru industrialak, inkubategiak, komunikazio eta teknologia berrien azpiegiturak, hezkuntza eta formakuntza zentroak, etab.

Bailara honetan, tradizioz, industri sektoreak pisu handia izan du, nola dago gaur egun egoera?

// Enpresa handi gutxi batzuk izan ezik, gehienak enpresa txiki eta ertain azpikontratazaileak dira. Gehiengoa, metalurgia, metal produktuen fabrikazio eta ekipamendu mekaniko eta makinerian daude oinarrituak. Krisia eta azken hamarkadetan izan dugun globalizazioaren eraginaren ondorioz, batzuk desagertu dira eta deslokalizazioak ere eman dira. Beste hainbat zonaldeetan gertatu den bezala, industria, enplegu sorreraren ikuspuntutik, pisua galduz joan da poliki-poliki. Dena den, azken datuen arabera (2006), oraindik ere Urola Garaian industriak lanpostuen %42a suposatzen du, eta beraz, gure

ekonomiari tira egiten dion sektorea izaten jarraitzen du.

Urteetan, bailarako enpresa industrialen errendimendu bilakaera, inbertsio maila, kalitate kudeaketa maila eta zerbitzuan eskaini duten balio erantsia oso ona izan da. Bestetik, kanpo merkatuetan jarduten duten enpresen portzentaia azpimarragarria da, %38a.

Azken langabezi datuek ere industri sektorearen apustua islatzen dute. 2011 urte bukaeran, 2010 urtearekin konparatuz gero, nahiz eta langabezi tasa %1a hazi (Gipuzkoan %4ko hazkundea), industri sektorean enpleguak %8,5ko suspertzea izan du (Gipuzkoan 6%).

Aurtengo urte hasiera ez da batere ona izan. 2012ko Otsaileko datuen arabera, lehenengo bi hilabeteetan langabeziak gora egin du Urola Garaian %4,4an, (Gipuzkoan ia %8,9ko igoera eman da, eta Euskadi mailan 9,6%koa). Hau horrela izanda, berriz ere bi hilabete hauetan industria sektorean enpleguaren susperraldi txiki bat eman da Urola Garaian, %3koa hain zuzen ere.

Nolakoak dira ondoko bailarekin ditugun harremanak?

/// Harreman estua dugu Gipuzkoako eskualde desberdinetako Garapen Agentzien artean. Sarritan elkartzeko gure proiektuen berri jakiteko eta komunean dauzkagun ekimenen inguruan jarraipena egiteko. Dena den, gure erlazio naturala Goierri da. Goieki Garapen Agentziarekin izan dugun eta daukagun erlazioa oso ona da eta, aukera sortzen denean, beti gaude prest haiekin lankidetzan aritzeko. Enpresetan elkarlana

sustatzen ari garen modu berdinean, agentzien arteko elkarlana ere sustatu beharko genuke.

Gauden egoeran, mezu positiborik eman al daiteke?

/// Denok gara kontziente hain gogor jasaten ari garen krisi ekonomiko eta hazkunde ereduaren krisi honen konponbideak ez daudela tokiko erakundeek eskuetan. Baina bailara honek potentzialidade ugari dituelakoan gaude

* Geografikoki modu estrategikoan kokatua eta komunikatua dagoen bailara honetan, ezagutza eta esperientzia handiko enpresa txiki eta ertain ugari daude. Balio erantsia gehitzen jakin duten enpresak eta oraindik ere garapenerako potentzial handia dutenak.

* Sektore Soziosanitarioan ere, dinamismo handiko agenteak dauzkagu, etorkizuneko sektore eta enplegu sortzaile izango dena, dudarik gabe.

* "Sortzen" bezalako proiektuek erakutsi digute, lanerako prest dauden pertsona dinamiko eta prestatu asko dagoela gure herrietan.

* Lanbide heziketan, eskualdeko plan estrategikoaren lerroan, perfil berriei eta etorkizuneko sektoreei begira, gogor lanean ari den erreferentziako formakuntza zentroa dugu, UGLE.

Guzti honekin, landu ditzagun sareak eta elkarlana maila guztietan (enpresak, ekintzaileak, berritzaileak, enplegu eta formakuntza eragileak...), eta honek, modu naturalean berrikuntza eta garapena eragingo du.

UGGASaren erronkak

// Gure erronka nagusia, aktibitate ekonomiko iraunkorra sustatzea eta ondorioz enplegua sortzea. Honen inguruan, Plan Estrategikoak jasotzen dituen erronka nagusi hauek azpimarratuko nituzke:

Ekintzaitzaren sustapenerako tresna eta guneak modu aktiboago batean garatu. Berrikuntzarako joera duen bailara sustatu: Tokiko talentuarentzat gune egokiak garatu, beraien bizi eta profesional proiektuak bailaran garatzeko aukera izan dezaten. Proiektu berritzaileei eta ekonomia sozialean/lokalean oinarritutako proiektuei babes intentsiboa eskaini bailarako garapenean izan dezaketen proiektioarengatik.

“SORTZEN Inkubategia”, egun 4 proiektu berritzaileekin, eta “SORTZEN Sarean” antolatzen ditugun topaguneak ditugu lan ildo honen adierazgarri nagusiak. Bestalde, aipatzekoa da ekonomia soziala sustatzeko helburuarekin mankomunitate mailan martxan dagoen udal zerbitzuen analisia.

Industri sektorearekiko apustua indartu, berrikuntza eta elkarlana sustatu bailarako ehun produktiboan; 2009an, 10-12 enpresa industrialekin ERAGINTZA Sarea martxan jarri zenetik, hainbat eta hainbat dira dinamizatu diren lan-taldeak. Esaterako, 2011. urtean, 30-35 enpresek hartu dute parte Uggasatik bultzatu ditugun lan-taldeen: Ingurumen formakuntzan lan-taldeak, nazioartekotze lan-taldea, Lidergoa eta estrategia industrialean

formakuntza, enpresa-lankidetzan landutako zerbitzu katalogo berriak, merkatuaren dibertsifikaziorako foroak (energia berriztagarriak eta sektore sanitarioa), etab.

2012an, tamainako enpresen eta enpresa txikien arteko loturak eta erlazioak areagotu nahi ditugu.

Enplegu politika aktiboak bailarako beharretara egokitu, ahalik eta modu eraginkorrean: Enplegu transferentziak eta Lanbide erakunde berrituak garapen agentzian funtzioak aldatu ditu. Honen harira, 2012an, Urola Garaiko sustapen ekonomikorako eta enplegu sustapenerako plan integrala garatzea da egitasmoa. Lanbideren lankidetzarekin, eskualdeetan “Enplegu mahaiak” abian jarri eta bailarako eragile politiko, ekonomiko eta sozialak inplikatzeko dituen planak koordinatu eta dinamizatzea proposatzen da.

Bailarako Sektore Soziosanitarioak, enplegu eta aktibitate sorreran duen potentziala balioan jarri; Arlo soziosanitarioan oso bailara dinamikoa dugu, bai ekipamenduen aldetik, Zumarragako Ospitalea erreferente delarik, eta baita ekimen eta zerbitzu maila aldetik ere.

Etorkizuneko sektore izango den neurrian, formakuntza, enplegua eta ekintzaitza bultzatzea da Mankomunitatearentzat erronka. Edozein sektore-garapen estrategiaren oinarrian Formakuntza eta Ikerketa baitago, azken urtean UGLEtik formakuntza proiektu integrala garatu da, epe ertainera emaitza oso positiboak emango dituelarik.

Aurrekontua eta parte hartzea

2012. urteko diru sarrerak 7.482.957,46 eurokoak izatea aurreikusi da. Iazko aurrekontuen likidazioa soberakin negatiboarekin ixtea espero du Udal Gobernuak

Udaleko egoera ekonomiko finantzarioa eta 2012. urteteo aurrekontuari eragiten dioten beste hainbat faktore aztertzen aritu ondoren, lehen aurrekontu proposamena aurkeztu du Udal Gobernuak. Lehenik, oposizioko alderdiei aurkeztu zien, eta ondoren, herritarrentzat Udaleko Atari nagusian antolatu zen bileran azaldu zuen. Hemendik aurrera, ohiko prozeduraren bidez onartuko da 2012. urteko aurrekontua.

Udal Gobernuaren nahia da, Udalaren gestioan herritarrek zuzeneko parte-hartzea izatea; baita urtero onartu behar diren aurrekontuetan ere. Aurten, dena dela, denbora falta medio, parte-hartze prozedura sendo eta erreala planteatzeko aukerarik ez dela izan argitu nahi izan du. Hala ere, herritarrei abenduaren 27an egindako bileran aurrekontuen nondik norakoak azaldu zitzaizkien, eta edonork bere iritzia edo ekarpenak egin ditzan ere jarri ditu udalak bitartekoak bere webgunearen bidez.

Aurten hori eginda, ordea, 2013an behar bezalako prozesu partehartzailea diseinatu eta abian jartzeko konpromisoa hartu du Udal Gobernuak.

2012an ere beheranzko joera

Aurtengo aurrekontuan ere azken urte-etako beherako tendentzia mantendu da, eta 2011ko aurrekontutik 1.080.022 euroko jaitsiera izan du. Hala ere, eta aurrekontuetan sarrerak eta gastuak parekoak izaten badira ere, aurtengo aurrekontuan sarrerak handiagoak izan beharko dute gastuek baino. Horren arrazoa 2011. urteko aurrekontua soberakin negatiboarekin amaitzeko aurreikuspena dagoela da.

Soberakin negatiboarekin amaitzeko faktore nagusia Udalak 2011n Foru Aldunditik jasotako Foru Funtsaren kopuru bat (383.517 euro) itzuli behar izatea da. Urtero Udalak Gipuzkoako Foru Aldunditik hark egindako bilketaren portzentaia bat jasotzen du, eta horri Foru Funtsa deitzen zaio. Kopuru hori ekitaldiaren hasieran jasotzen da, baina ekitaldiko likidazioa egiten denean, hau da, Foru Aldundiak bilketa zenbatekoa den konfirmatzen duenean, berresten da. 2011n Aldundiak egindako aurreikuspen okerraren eraginez, Urretxuko Udalak jaso zuenetik bueltatu beharrekoaren %50 itzuli behar izan du otsaila baino lehen.

Gastuen arrazionalizazioa

2012ko aurrekontuaren %6.8 Udalak dituen zorrak ordaintzeko erabiliko da. Baina horrez gain, Udalak baditu beste gastu batzuk, finkoak edo jaisteko oso zailak direnak: eraikinen mantenua, ura, argindarra, aseguruak, aurrez egindako kontratazioak e.a. Hala ere, eta Udalak duen egoera ekonomikoa kontua hartuta, Udal Gobernuak saiakera berezia egin du, batik bat zenbait kontratazio eta mankomunitateari ordaintzen zaizkion kopuruetan diru apur bat aurrezteko. Horretan aritu da azken hilabetean Udal Gobernuak, eta horren ondorioz, gastu arruntaren %23ko batez bestekoa aurreztuko da.

Udal gobernuaren irizpideak

Gastu horiek guztiak ordainduta, gertzen den diru kopurua bestelako gastu eta inbertsioetan banatzeko irizpide batzuk jarri ditu Udal Gobernuak:

- Gastu soziala mantentzea.
- Gure kultura suspertzeko partidak mantentzea.
- Kanpotik gurera datozenen eta gure arteko elkarbizitza orekatzeko dauden egitasmoak indartzea.
- Gure hizkuntzaren aldeko politikak mantentzea, Udala bera normalizazioan eredu izanda: Goierriko hedabideekin eta Kontseiluarekin hitzarmena, euskalduntzeko diru-laguntzak gehitzea...
- Nekazaritzako partida igotzea, turismoa eta merkataritzarako zeuden partidak orekatzea.

- Gizon eta emakumeen berdintasunaren alde oinarriak sendotzea.

- Nazioarteko elkartasunarekin konprometitzea. Datozen 4 urteetan aurrekontuaren %0,7a ematera iristeko konpromisoa hartuz.

- Lanpostu publikoak sortzea. TAG lanpostu bat, Administralari bat, Kontuhartzaile bat eta Ingurumen eta nekazaritza lanpostua.

- Lan jardun erdiz, arkitektoa kontratazea.

Onarpen metodologia

Horiek horrela, otsailean aurkeztu zien Udal Gobernuak 2012. urteko aurrekontuaren zirriborroa gainerako alderdiei, eta otsailaren 16ean egin zen batzar irekian eman zitzairen horren inguruko informazioa herritarrei. Martxoa eta apirilean zehar beste alderdi zein herritarren ekarpenak jasotzeko tarteak zabaldu da eta aurrekontua arloz arlo eztabaidatu da Udal batzorde informatzaileetan eta baita Udalaren erakunde autonomoetan ere. Behin hori eginda, aurrekontuari emendakinak egiteko tarteak irekiko da, eta apirileko plenoan onartzea aurreikusten da.

Edozein eragile zein herritarrek beren ekarpenak egin nahi baditu, Urretxuko Udalaren webgunean aurrekontu osoa zintzilikatuko da, eta bertan, iritziak eta ekarpenak egiteko aukera ere izango da.

Zure proposamen, iradokizun eta iritziak Udal Gobernuari jakinarazi nahi badizkiozu bidali hona: alkatetza@urretxu.net



Ana Isabel Iturbe

Hezkuntza laguntza espezialista

Krisia, zer dio kaleak?

Gaur egun bizi dugun krisiak herri mailan eraginik izan duela uste al dezu? Pertsonalki ta zure inguruan zertan nabaritu dezu?

¿La situación de crisis en la que estamos te ha afectado en algún sentido? ¿Crees que se nota a nivel de pueblo?



Jose Antonio, Jubilado

// Personalmente no noto la influencia de la crisis, será que estoy jubilado. A nivel del pueblo tampoco he notado mucho cambio.



David, Irakaslea

// Bai, eragina izan du, inguruan lagun asko ditut langabezian. Gauzak garestitu dira ere. Pertsonalki ezin kexa naiteke. Eskerrak lana dudan!!



Unai, Imprenta teknikaria

// Krisia egon badago baina nire ustez jendea ez zaio gehiegi antzematen; tabernetan, kalean jende mugimendua somatzen da... Lanean adibidez izan dut eragina, lan gutxikin gabiltzala nabaritzen dugu.



Javi, Tabernaria

// Si se nota a nivel de pueblo. Se nota en el consumo, también en la preocupación e inseguridad de la gente. En el bar, por ejemplo, los fines de semana ha bajado el rendimiento. Además, alrededor tengo mucha gente que está en paro.

«Urretxuar erara» sukaldatutako azterketa soziologikoa

Peio Galvezek, «herritarrek gogoetarako tresna bat gehiago izan dezatela» bilatu du Urretxuar balioen ikerketarako eta definiziorako bekarekin egindako liburuan

Urretxuren balioak ardatz bezala hartuta, gure herriaren azterketa soziologiko zabal bat osatu du Peio Galvezek "Urretxuar balioen ikerketarako eta definiziorako beka" egitasmoaren harira argitaratutako liburuan. Identitatea eta definitzen horren zaila den urretxuertasunaren inguruan egindako lan mardul honekin «herritarrak gaiaren inguruan gogoeta egitera bultzatu nahi nituzke. Aurreiritziak albo batera utzi eta bakoitzak bere ikuspegia izan dezala. Bide batez, taldeei elkar ezagutzeko eta elkarlanean lagunduko dien tresna bat eskaini nahi izan dugu».

Antzeko lanik ia inon argitaratu ez denez, aurrekaririk gabe, Peio Galvezek hartu beharreko lehen erabakia metodologiaren ingurukoa izan zen, batez ere, balore hauek transmititzen dituzten subjektuak definitzea. «Hasieratik nahikoa garbi izan genuen subjektu horiek herriko talde eta elkarte desberdinak

izan behar zutela. Dokumentazioaren eta beraiekin izandako elkarrizketa bidez talde mota desberdin asko aztertu ditugu».

Azterketa diakronikoa da lan honek aurkezten diguna, hau da, urteetan eman den baloreen garapena azaltzen du eta egileak trantsizio garai batean gaudela ondorioztatu du. «70. hamarkadara arte Urretxun zegoen balio sistema kristautasunean oinarrituta zegoen. Datuak hor daude, esaterako 100 prozesio egiten ziren urtean, hiru eguneko bat, eta orain kristautasunak pisu hori galdu du. Noski balore kristauek hor jarraitzen dutela, baina gero eta gutxiago».

Liburuaren beste ardatzetako bat Euskal Jaiaren ingurukoa da, nekez egongo baita inon herri baten baloreak islatzen dituen karrozen desfilea bezalako erakusleiho erraldoirik. Euskaltzaletasuna, elkartasuna, berdintasuna, kirolzaletasuna... Hauek eta beste asko dira mimoz prestatu diren «urretxuar erarako» errezeta honen osagaiak. Nahi duenak eskuragarri du, dohan, kultur etxean.

On egin!!!



2012
**ANTZERKI
EMANALDIAK**

ZUMARRAGA
URRETXU



apirilak **13** *abril*

BODOLOGUAK
TXINTXETA produkzioak

22:30

maiatzak **4** *mayo*

100m²
TXALO producciones

22:30

ekainak **1** *junio*

**PRESIDENTE
ANDREAK**
NEXO teatro

22:30

urriak **5** *octubre*

CARAMELO
Cia. CARAMALA

22:30

azaroak **2** *noviembre*

**IPAR HAIZEAREN
KONTRA
TANTTAKA**

22:30

abenduak **7** *diciembre*

**MUJERES DE
SHAKESPEARE**
EL BRUJO

22:30